Bilaketa / Búsqueda
Inprimaketa / Impresión
Aurkibidea / Índice
Orrialdea pasatzeko / Pasa página

**Kultur Zerbitzua**
Atarrabiako Udala

**Servicio de Cultura**
Ayuntamiento de Villava

# 2024ko Memoria
# Memoria 2024

- Kultur zabalkundea
  Difusión cultural
- Kultur sormena eta prestakuntza
  Creación cultural y formación
- Herriko sustapen soziokulturala
  Promoción sociocultural de la localidad
- Jai egutegia
  Calendario festivo
- Kultur Etxearen kudeaketa
  Gestión de la Casa de Cultura




ATARRABIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE VILLAVA
KULTURA ZERBITZUA
SERVICIO DE CULTURA

casa de cultura de villava
atarrabiako kultur etxea

# Aurkibidea / Índice

Aurkezpena / Presentación 3

Kultur zabalkundea
Difusión cultural 7

ARTE ESZENIKOAK / ARTES ESCÉNICAS 8
MUSIKAK / MÚSICAS 18
LITERATURA / LITERATURA 24
IKUS-ENTZUNEZKOAK / AUDIOVISUALES 29
ARTE PLASTIKOAK / ARTES PLÁSTICAS 32

Kultur sormena eta prestakuntza
Creación cultural y formación 36

Herriko sustapen soziokulturala
Promoción sociocultural de la localidad 53

Jai egutegia
Calendario festivo 61

Kultur Etxearen kudeaketa
Gestión de la Casa de Cultura 66

# Aurkezpena / Presentación

Hona hemen herritarren eskura jarria Kultura Zerbitzuak 2024an egindako jardueraren gaineko Memoria, bi helburu betetzeko, hots, gardentasunez jokatzeko eta kontuak emateko. Oroitidazkiak edo memoriak tresna onak baitira gure herrian kulturaren alde egindako lana erakusteko.
Ez da erraza agiri batera ekartzea urte osoan egindako ahalegina eta lana. Eta ez da erraza ere kultur bizipenaren funtsa datuen bidez erakusten saiatzea. Datuak, ordea, bai eta datuak aztertu eta interpretatzea ere, lagungarriak zaizkigu kulturak jendearen ongizateari, gizarte kohesioari eta pentsamendu kritikoa sortzeari egiten dion ekarpena hobeki ulertzeko. Atzendu gabe lan artistikoek berez dutela gaitasuna estetika goresteko, eta bizitza beteago eta libreago baterako esperientzia adierazgarriak sortzeko.

Honatx Kultura Zerbitzuaren ekintzak gidari izan dituen jarduketa lerro nagusiak:

- Jendeak kultura eskuratzeko sarbidea sustatzea, ekitaldi sorta zabalaren bidez: antzerki, musika eta dantza ikuskizunak, arte plastikoei buruzko erakusketak, irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak, zinematografia eta bestelako arte adierazpenak;
- Herriko kultur dinamika sendotzea, arte erakundeekiko hitzarmenenen nahiz hitzarmen izendunen bidez, bai eta jarduerei laguntzak emanez ere;
- Herriko erakundeek eta sortzaileek sustatutako ikuskizunei lekua ematea Kultur Etxeko kultur eskaintzan;
- Hainbat lehiaketaren bitartez, arte sorkuntza sustatzea;
- Jendearen sormen ahalmenak garatzea, prestakuntza ez-arautua emanez sormenezko aisia ikastaro eta tailerren bitartez;
- Ondare immateriala babestu eta erakustea, memoria historikoa berreskuratzea eta herriaren nortasunaren balioa nabarmentzea;
- Kultura euskaraz bizi eta gozatzea ahalbidetuko duen kultur eskaintza erakargarria sustatzea;
- Kultur programazioetan genero berdintasuna eta kultur aniztasuna txertatzea.

Eta aurkezpen hau bukatu baino lehen, eskerrak eman nahi dizkiegu zinez lan hori egitea ahalbidetzen duten guztiei: Kultur Etxeko giza taldeari, gure programazioa bizitzaz betetzen duten kultur eragileei, herriko elkarte-mugimendu biziari, eta jakina, lagun egiten diguten ikusleei. Izan ere, haien laguntzarik gabe, lan honek ez luke zentzurik, eta Kultur Etxea ez litzateke izanen kulturaren “itsasargi eta mintegi”.

# Aurkezpena / Presentación

Compartir con la ciudadanía la Memoria de la actividad realizada por el Servicio de Cultura en 2024 es un ejercicio de transparencia y rendición de cuentas. Una memoria es una buena herramienta para mostrar el trabajo realizado en favor de la cultura en nuestra localidad.
No es tarea fácil plasmar en un documento todo el esfuerzo y dedicación realizados. Intentar reflejar la esencia de la vivencia cultural con datos tampoco lo es. Pero los datos, su análisis e interpretación, ayudan a entender mejor la contribución de la cultura al bienestar de las personas, a la cohesión social y a la creación de pensamiento crítico. Sin olvidar la capacidad que tienen las obras artísticas de elevación estética, de generar experiencias significativas para una vida más plena y libre.

Las principales líneas de actuación que han guiado la acción del Servicio de Cultura, han sido:

- Fomentar el acceso a la cultura a través de una oferta amplia de espectáculos de teatro, música y danza, exposiciones de artes plásticas, actividades de animación a la lectura, cinematografía y otras expresiones artísticas;
- Fortalecer la dinámica cultural local a través de convenios con entidades artísticas, convenios nominativos y ayudas a actividades;
- Incentivar la presencia de espectáculos promovidos por entidades y creadores locales en la oferta cultural de la Casa de Cultura;
- Favorecer la creación artística a través de diferentes certámenes;
- Desarrollar las potencialidades creativas de las personas ofreciendo formación no reglada a través de cursos y talleres de ocio creativo;
- Preservar y transmitir el patrimonio inmaterial, recuperar la memoria histórica y poner en valor la identidad local;
- Fomentar una oferta cultural atractiva que permita vivir/disfrutar de la cultura en euskera;
- Incorporar en las programaciones culturales la igualdad de género y la diversidad cultural.

No podemos terminar esta presentación sin agradecer a quienes hacen posible este trabajo: al equipo humano de la Casa de Cultura, a las y los agentes culturales que dan vida a nuestra programación, al dinámico asociacionismo local y, por supuesto, al público que nos acompaña. Sin su colaboración, este trabajo no tendría sentido y la Casa de Cultura no sería un "Faro y semillero" de cultura.

# Zenbakitan / En cifras

**Kultur etxean eta espazio publikoan eskaini diren jarduerak**

**Actividades ofertadas Casa de Cultura y en espacio público**




**Arte eszeniko profesionaletan eta amateurretan eskaini diren ikuskizunak**

**Espectáculos artes escénicas profesionales y amateur ofertados**

| | Ekitaldiak<br>Eventos | Profesionalak<br>Profesionales | | Amateurrak<br>Amateur | |
|---|---|---|---|---|---|
| Dantza / Danza | 9 | 5 | 55,55 % | 4 | 44,44 % |
| Magia | 4 | 2 | 50 % | 2 | 50 % |
| Antzerkia / Teatro | 64 | 52 | 81,25 % | 12 | 18,75 % |
| Musika / Música | 23 | 10 | 43,48 % | 13 | 56,52 % |
| Guztira / Total: | 100 | 69 / 69% | | 31 / 31% | |

**Kultur Etxean eskaini diren jarduerak**

**Actividades ofertadas en Casa de Cultura**




**Nafarroako eta Nafarroaz kanpoko arte eszenikoetako ikuskizunak**

**Espectáculos artes escénicas navarros y no navarros ofertados**

| | Ekitaldiak<br>Eventos | Nafarroakoak<br>De Navarra | | Nafarroaz kanpokokoak<br>De fuera de Navarra | |
|---|---|---|---|---|---|
| Dantza / Danza | 9 | 8 | 88,89 % | 1 | 11,11 % |
| Magia | 4 | 4 | 100 % | 0 | 0 % |
| Antzerkia / Teatro | 64 | 45 | 70,31 % | 19 | 29,69 % |
| Musika / Música | 23 | 18 | 78,26 % | 5 | 21,74 % |
| Guztira / Total: | 100 | 75 / 75% | | 25 / 25% | |

# Zenbakitan / En cifras

## Haur eta familiendako eskaini den ekitaldi kopurua
## Nº de eventos ofertados para público infantil / familiar

| | Ekitaldiak Eventos | Guztien % % del Total |
|---|---|---|
| Zinema / Cine | **11** | 46 % |
| Ahozko narrazioa Narración oral | **33** | 100 % |
| Magia | **4** | 100 % |
| Antzerkia / Teatro | **18** | 28 % |
| Musika / Música | **5** | 21 % |
| Guztira / Total: | **71** / 48% | |

## Kultur ekitaldietan izandako pertsona kop.
Kultur Etxea, Udaletxe plaza…
## Nº de personas asistentes a actos culturales
Casa de Cultura, plaza Consistoria ...

| Arloa / Disciplina | Ekitaldi kop. Nº eventos | Ikusleak Asistentes |
|---|---|---|
| Zinema / Cine | 24 | 2.196 |
| Ahozko narrazioa / Narración oral | 33 | 1.029 |
| Liburu aurkezpenak / Presentación libros / | 1 | 150 |
| Dantza / Danza | 9 | 1.711 |
| Magia | 4 | 1.011 |
| Antzerkia / Teatro | 62 | 10.814 |
| Musika / Música | 24 | 6.487 |
| Erakusketak / Exposiciones | 11 | 6.860 |
| Guztira / Total: | **168** | **30.258** |

## Euskaraz eskaini den ekitaldi kop.
## Nº de eventos ofertados en euskera

| | Ekitaldiak Eventos | Guztien % % del Total |
|---|---|---|
| Zinema / Cine | **6** | 25 % |
| Ahozko narrazioa Narración oral | **15** | 45 % |
| Magia | **1** | 25 % |
| Antzerkia / Teatro | **15** | 23 % |
| Musika / Música | **6** | 26 % |
| Guztira / Total: | **43** / 29% | |

## Antzokiaren okupazioa %
## % ocupación Teatro

| | Ekitaldiak Eventos | Ikusleak Asistentes | okupazioa % de ocupación |
|---|---|---|---|
| Zine-foruma emakumea Cine fórum mujer | **7** | 520 | 26 % |
| Dokumentalak Documentales | **4** | 480 | 41 % |
| Dantza / Danza | **7** | 1.161 | 57 % |
| Magia | **4** | 1.011 | 87 % |
| Antzerkia (gaztelaniaz) Teatro (castellano) | **33** | 6.071 | 64 % |
| Antzerkia (euskaraz) Teatro (euskera) | **12** | 2.093 | 60 % |
| Antzerkia (testurik gabe) Teatro (sin texto) | **5** | 842 | 58 % |
| Musika / Música | **20** | 4.637 | 80 % |
| Guztira / Total: | **92** | **16.815** | **63%** |

## Kultur Etxeko kultur ekitaldietan izandako pertsona kop.
## Personas asistentes a actos culturales en Casa de Cultura

| Arloa / Disciplina | Ekitaldi kop./ Nº eventos | Ikusleak/ Asistentes |
|---|---|---|
| Zinema / Cine | 21 | 1.307 |
| Ahozko narrazioa / Narración oral | 13 | 248 |
| Liburu aurkezpenak / Presentación de libros / | 1 | 150 |
| Dantza / Danza | 7 | 1.161 |
| Magia | 4 | 1.011 |
| Antzerkia / Teatro | 53 | 9.006 |
| Musika / Música | 20 | 4.637 |
| Erakusketak / Exposiciones | 11 | 6.860 |
| Guztira / Total: | **130** | **24.380** |

# Kultur zabalkundea
# Difusión cultural


- Kultur zabalkundea
  Difusión cultural
- Kultur sormena eta prestakuntza
  Creación cultural y formación
- Herriko sustapen soziokulturala
  Promoción sociocultural de la localidad
- Jai egutegia
  Calendario festivo
- Kultur Etxearen kudeaketa
  Gestión de la Casa de Cultura


ARTE ESZENIKOAK / ARTES ESCÉNICAS

MUSIKAK / MÚSICAS

LITERATURA / LITERATURA

IKUS-ENTZUNEZKOAK / AUDIOVISUALES

ARTE PLASTIKOAK / ARTES PLÁSTICAS

# ARTE ESZENIKOAK / ARTES ESCÉNICAS

## Nafarroako estreinaldiak / Estrenos navarros

**6** estreinaldi / estrenos
**9** saio / funciones
**2.443** ikusle / espectadores-as
Okupazioa / ocupación **%94**

■ “Yûgen”, zirku-proposamen garaikide berritzailea, unibertsoaren edertasunaren zentzurik sakonenarekin lotzen gaituena, La Banda Teatro Circok urtarrilaren 20an estreinatua. Martxoaren 2an, “Lo imposible se Hace Realidad”, hots, Massil magoak ikuskizun ikusgarria aurkeztu zuen: eskapismo saioak, ilusio handiak eta magia komikoa. Maku Gutiérrezek, bestalde, gure herriko emakume erretiratu andanari entzunez eta ahotsa emanez ondutako sormen prozesuaren ondorioz, “¿Inanias? antzezlana estreinatu zuen apirilaren 13an eta 14an. Urriaren 26an, Ene Kantak taldeak “Bisonte-Mastodontearen bila” eman zuen, Nerea Urbizuren liburuan oinarritutako antzerki ikuskizuna, haurrei zuzendua; abentura zirraragarria da Aralar mendian leize-zuloetako garaiko bisonte baten bila. Olatz Larumbek “El reflejo de la mente” eman zuen urriaren 31n, hots, dantza garaikideko ikuskizuna, identitateaz eta hainbat gizarte-saretan batera bizitzeaz gugan gogoeta eragiteko. Eta etorkizun oparoko Las Nenas Theatre taldeak “Torcidxs” ekarri zuen azaroaren 24an, antzerkia gorputz okerra balitz bezala barnetik erakusten digun ikuskizun ausarta, burdinek eta kableek zeharkatua, ezinezkoa den zuzentasuna xede.

■ “Yûgen”, una propuesta de circo contemporáneo innovador que nos conecta con el sentido más profundo de la belleza del universo de La Banda Teatro Circo se estrenó el 20 de enero. El 2 de marzo “Lo imposible se Hace Realidad”, el mago Massil presentó un espectáculo impactante con números de escapismo, grandes ilusiones y magia cómica. Maku Gutiérrez, tras un proceso creativo escuchando y dando voz a unas cuantas mujeres jubiladas de nuestra villa, estrenó la obra teatral “¿Inanias? el 13 y 14 de abril. El 26 de octubre Ene Kantak “Bisonte-Mastodontearen bila”, espectáculo teatral infantil en euskera basado en el libro de Nerea Urbizu, una emocionante aventura en la sierra de Aralar en busca de un bisonte en la época de las cavernas. Olatz Larumbe “El reflejo de la mente” el 31 de octubre, un espectáculo de danza contemporánea que nos invita a reflexionar sobre la identidad y el coexistir en diversos tejidos sociales. Y la prometedora compañía Las Nenas Theatre el 24 de noviembre “Torcidxs”, valiente espectáculo que nos muestra el teatro por dentro como si se tratara de un cuerpo torcido, atravesado por hierros y cables, que aspira a una rectitud imposible.










# Kultur zabalkundea
# Difusión cultural

## ARTE ESZENIKOAK / ARTES ESCÉNICAS

### Antzerki profesionala / Teatro profesional

**17** ikuskizun / espectáculos
**21** saio / funciones
**55%** nafar konpainiak / compañías navarras
**4.053** ikusle / espectadores-as
Okupazioa / ocupación %**66**

Urtean zehar, 17 ikuskizun profesional gozatu ditugu. Honatx lanak eta emaileak: "Vida", Javier Aranda konpainia (urtarrilak 21); "Ezkaba", Iluna Producciones (urtarrilak 28); "Tu Tum Platz", Txalo Produkzioak (otsailak 4 eta martxoak 17); "Sexpir Mal", Adriana Olmedo Producciones (otsailak 11); "Te regalo el sol", Sapo Producciones (otsailak 18); "En concierto", Primital Brothers (otsailak 25); "Los monólogos de la vagina", Txalo Produkzionak (martxoak 3); "Almazenean", Txalo Produkzioak (martxoak 10); "Margarita Reina Orquídea", Amarga Teatro (apirilak 9 eta 10); "Liberarse. Reflexiones de armario", La Piel Producciones (maiatzak 17); "Malísimos" (ekainak 14), "Chicas malas" (ekainak 15 eta 16) eta "Dentro del Bosque" (ekaina 22 eta 23), ANTEM; "¡Dejarme sola!", Belén Nevado (urriak 11); "El paraíso de los rotos", Parena Teatro (urriak 20); "La Gracia y la Palabra", Pepe Viyuela (abenduak 8) eta "Perséfone", Iluna Producciones (abenduak 15). Honatx programaziorako irizpide nagusiak: lanen kalitatea eta interesa, haien maila artistikoa; eztabaida publikoan diren gaiekiko lotura, pentsamendu kritikoaren sustagarri; estetika berriak eta eszena-hizkuntza berriak agertzea; genero ikuspegia, emakume egileen, antzerkigileen eta antzezleen ekarpenaren balioa nabarmenduz; euskarazko ikuskizunen presentzia, euskal eszenaren bizitasunaren erakusgarri; eta publikoek programazio askotarikoen eta narratiba sorta zabalaren alde dituzten gustuak eta lehentasunak.












# ARTE ESZENIKOAK / ARTES ESCÉNICAS

## Antzerki profesionala / Teatro profesional

A lo largo del año hemos disfrutado de 17 espectáculos profesionales: “Vida”, de la compañía Javier Aranda (21 de enero); “Ezkaba”, de Iluna Producciones (28 de enero); “Tu Tum Platz”, de Txalo Produkzioak (4 de febrero y el 17 marzo); “Sexpir Mal”, de Adriana Olmedo Producciones (11 de febrero); “Te regalo el sol”, de Sapo Producciones (18 de febrero); “En concierto”, de Primital Brothers (25 de febrero); “Los monólogos de la vagina”, de Txalo Produkzionak (3 de marzo); “Almazenean”, de Txalo Produkzioak (10 de marzo); “Margarita Reina Orquídea”, de Amarga Teatro (9 y 10 abril); “Liberarse. Reflexiones de armario”, de La Piel Producciones (17 de mayo); “Malísimos” (14 de junio), “Chicas malas” (15 y 16 de junio) y “Dentro del Bosque” (22 y 23 de junio), de ANTEM; “¡Dejarme sola!”, de Belén Nevado (11 octubre); “El paraíso de los rotos”, de Parena Teatro (20 de octubre); “La Gracia y la Palabra”, de Pepe Viyuela (8 de diciembre) y “Perséfone”, de Iluna Producciones (15 de diciembre). Los principales criterios de programación han sido: la calidad e interés de las obras, su vuelo artístico; la conexión con temáticas presentes en el debate público que favorezcan el pensamiento crítico; la presencia de nuevas estéticas y nuevos lenguajes escénicos; la perspectiva de género poniendo en valor la aportación de autoras, dramaturgas, actrices; la presencia de espectáculos en euskera que reflejen la vitalidad de la escena euskaldun; y los gustos y preferencias de los públicos en favor de una programación variada y plural en narrativas.














# ARTE ESZENIKOAK / ARTES ESCÉNICAS

## Sendaberri / Paisaia eszeniko berriak
## Nuevos paisajes escénicos

**3** ikuskizun / espectáculos
**118** ikusle / espectadores-as
Okupazioa / ocupación %**14**

Sendaberri zirkuitua Nafarroako Antzoki Sarearen (RTN/NAS) berezko zikloa da eta helburu du, bestelako hizkuntzak nahiz bestelako estetikak erakusten dituzten eta/edo kontzientzia sozial kritikoa sortzen duten ikuskizunen bidez, udal eszena-guneen programazioa aberastu eta osatzea. Martxoaren 24an, "Simulacro" eman zen, Ion Iraizozek ondua; bertan, bikote bat topaketa txikiak egiten entseatzen da, beren buruaz eta giza izaeraz zerbait ulertzen saiatzeko; urriaren 27an, Pez Limboren "Itsas behera" eman zen, nekeak neke, bizitzeko beharra proposatzen duena; eta azaroaren 3an, Coriolis Teatro de Objetos Uruguaiko konpainiaren txanda izan zen, "Manual" ikuskizuna emateko; bertan, eskuak dira istorioak kontatzen dituzten objektu dramatikoak.

El circuito Sendaberri es un ciclo propio de la Red de Teatros de Navarra (RTN/NAS) cuyo objetivo es enriquecer y complementar la programación de los espacios escénicos municipales con espectáculos que muestran otros lenguajes, otras estéticas y/o generan conciencia social crítica. El 24 de marzo se pudo disfrutar de "Simulacro", de Ion Iraizoz, obra en la que una pareja ensaya pequeños encuentros para tratar de entender algo sobre ellos mismos y la condición humana; el 27 de octubre, de la comedia "Itsas behera", de Pez Limbo, que plantea la necesidad de existir a pesar de todo; y el 3 de noviembre fue el turno de la compañía uruguaya Coriolis Teatro de Objetos, que presentó su espectáculo "Manual", en la que las manos son objetos dramáticos que van contando diferentes historias.







# ARTE ESZENIKOAK / ARTES ESCÉNICAS

## Antzerki amateurra / Teatro amateur

**9** ikuskizun / espectáculos

**1.284** ikusle / espectadores-as

Okupazioa / ocupación %**50**

Nafarroako antzerki amateurrak ere bere lekua izan zuen programazio eszenikoan. Honatx zer lan gozatu genituen, bai eta talde emaileak ere: "1789", Teatro en la Chácena (urtarrilak 14); "Gora Suiza", Talo Teatro (martxoak 15), "El salto de las Tillandsias", Leuna Teatro (maiatzak 4); "Misantropo" (maiatzak 25) eta "El manual de la buena esposa" (maiatzak 26), Nafarroako Antzerki Musikalaren Akademia; "The Room", Speculum Vitae (azaroak 7); "El matrimonio Palavrakis", Puntido Teatro (azaroak 8); "Cerda", Teatro Jus la Rotxa (azaroak 22) eta "Siete Mujeres. En toda mujer hay una guerrera", Puntido Teatro (azaroak 29). Emanaldietako bat, "The Room", Nafarroako Antzerki Amateurraren Federazioaren programazio barnean sarturik zegoen.

El teatro amateur navarro también tuvo su presencia en la programación escénica. Los títulos que se pudieron disfrutar fueron: "1789", de Teatro en la Chácena (14 de enero); "Gora Suiza", de Teatro Talo (15 de marzo), "El salto de las Tillandsias", de Leuna Teatro (4 de mayo); "Misantropo" (25 de mayo) y "El manual de la buena esposa" (26 de mayo), de la Academia Navarra de Teatro musical; "The Room", de Speculum Vitae (7 de noviembre); "El matrimonio Palavrakis", de Puntido Teatro (8 de noviembre); "Cerda", de Teatro Jus la Rotxa (22 de noviembre) y "Siete Mujeres. En toda mujer hay una guerrera", de Puntido Teatro (29 de noviembre). Una de las funciones, "The Room", formaba parte de la programación de la Federación de Teatro Amateur de Navarra.























■ Haurrek hamar magia, txotxongilo eta antzerki ikuskizun gozatu dituzte familiartean. Honatx lanak eta emaileak: “Azken Fakirra”, Zirika Zirkus (urtarrilak 3); “Marcos Pocus”, Marcos magoa (urtarrilak 4); “Muna”, de Ganso & Cía (otsailak 3); “Como un pez”, Producciones Maestras” (otsailak 17); “Onin y el misterio del Teatro”, Tdiferencia (apirilak 5 eta 6); “Organik”, Ameztu taldea (maiatzak 18); “Ez gara Jaitsiko”, Pirritx, Porrotx eta Marimotots (urriak 6); “Ambotoko Mari”, Logela Multimedia (azaroak 16); “Solete, amigos y magia”, Marcos magoa (abenduak 27) eta “Kontu kantari”, La enana naranja (abenduak 28). “Arrain bat bezala” eta “Onin eta antzerkiaren misterioa” bitan eman ziren, euskaraz eta gaztelaniaz, eta “Ez gara Jaitsiko”, bitan.

■ Diez han sido los espectáculos de magia, títeres y teatro que los y las txikis han podido disfrutar en familia. Los títulos han sido: “Azken Fakirra”, de Zirika Zirkus (3 de enero); “Marcos Pocus”, del mago Marcos (4 de enero); “Muna”, de Ganso & Cía (3 de febrero); “Como un pez”, de Producciones Maestras” (17 de febrero); “Onin y el misterio del Teatro”, de Tdiferencia (5 y 6 de abril); “Organik”, de la cía Ameztu (18 de mayo); “Ez gara Jaitsiko”, de Pirritx, Porrotx eta Marimotots (6 octubre); “Ambotoko Mari”, de Logela Multimedia (16 de noviembre); “Solete, amigos y magia”, del mago Marcos (27 de diciembre) y “Kontu kantari” de La enana naranja (28 de diciembre). “Como un pez” y “Onin y el misterio del Teatro” tuvieron doble función, en euskera y castellano y, dos funciones de “Ez gara Jaitsiko”.

# ARTE ESZENIKOAK / ARTES ESCÉNICAS

## Familiendako ikuskizunak / Espectáculos familiares

**10** ikuskizun / espectáculos
**13** saio / funciones
**54%** euskaraz / euskera
**2.201** ikusle / espectadores
Okupazioa / ocupación **%76**







## ARTE ESZENIKOAK / ARTES ESCÉNICAS

### Oholtzara - Salto a Escena

**5** forum antzerki: “Eskola jazarpena”/ teatros fórum “Acoso escolar”

**308** ikasle / escolares

Antzerki tailer **bat** / **1** taller de teatro

Oholtzara-Salto a Escena Nafarroako Antzoki Sarearen (RTN/NAS) programa bat da eta Arte Eszenikoak 11 urtetik gorako gazteengana hurbildu nahi ditu, haien protagonista bihurtu daitezen, bitartekaritzaren, prestakuntzaren eta erakustaldiaren bidez haien beharrei erantzunez. 2024an forum antzerkiko 5 saio programatu ziren: “La historia de Sara”, eskola jazarpenaren arazoari heltzeko, Lorenzo Goicoa eta Atargi ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei zuzenduak, bai eta Pedro de Atarrabia DBHIko bigarren hezkuntzako 2. mailako ikasleei ere. 308 ikaslek hartu zuten parte. Halaber, antzerki tailer bat antolatu zen, Gaztelekuk kudeatua. Programak Nafarroako Kutxa Fundazioaren eta “la Caixa” Fundazioaren finantzazioa jaso zuen.

Oholtzara- Salto a Escena es un programa de la Red de Teatros de Navarra (RTN/NAS) cuya finalidad es acercar las Artes Escénicas al público joven a partir de los 11 años y convertirlo en su protagonista, atendido a sus necesidades a través de la mediación, formación y exhibición. En 2024 se programaron 5 sesiones de teatro fórum: “La historia de Sara”, que afronta el problema del acoso escolar, dirigidas al alumnado de 5º y 6º de Educación Primaria de los Centros Escolares Lorenzo Goicoa y Atargi y al alumnado de 2º de Educación Secundaria del IESO Pedro de Atarrabia. Participaron 308 escolares. También se promovió un taller de teatro que se gestionó desde el Gazteleku. El programa contó con la financiación de la Fundación Caja Navarra y la Fundación “la Caixa”.





# ARTE ESZENIKOAK / ARTES ESCÉNICAS

## Kale ikuskizunak / Espectáculos de calle

**4** ikuskizun / espectáculos
**1.500** ikusle / espectadores

Udan, familiek "Moby Dick" gozatu zuten abuztuaren 20an, Xabier Artiedak ondua (euskaraz). Arras ikuskizun freskoa: txotxongiloak, objektu-antzerkia eta ikusleen parte-hartzea, eleberri klasikora hurbiltzeko. Hilaren 27an, bestalde, Ganso & Cía taldeak "Panoli Kabareta" eman zuen (keinu clow), bi pertsonaiaren ahalegina zirku-parodiaren bidez ikusleei atsegin emateko.
Irailaren 15ean, Markeliñe taldeak "Andante" taularatu zuen, hots, maskara-antzerkia, musika zuzenean emanik, Udaletxe plazan zehar; zapata anonimoen gaineko istorioak dira gerra eta zapalkuntza garaietan kontatzeko, ahaztu beharko ez genituzkeen istorioak.
Eta urriaren 4an, ostiralarekin, herriko festen bezperetan, Deabru Beltza taldeak "Su Danborrak" eman zigun gauez, piroteknia-perkusioz betetako ikuskizun ibiltaria. Aker, Akelarreko deabrua, karrika Nagusian eta Miguel Indurain plazan barna ibili zen aurrera eta atzera, perkusio-jotzaile sorta ederra gidatuta.

En verano, el público familiar pudo disfrutar el 20 de agosto de "Moby Dick", de Xabier Artieda (euskera), un espectáculo muy fresco, con títeres, teatro de objetos y participación ciudadana, un acercamiento a la novela clásica. Y el 27, de "Panoli Kabareta", de Ganso & Cía (clown gestual), el esfuerzo de dos personajes por agradar convertido en parodia circense.
El 15 de septiembre, la compañía Markeliñe nos ofreció "Andante", un espectáculo de teatro de máscaras con música en directo que transitó por la plaza Consistorial narrando sin palabras historias de zapatos anónimos en épocas de guerras y represiones, historias que no deberíamos olvidar.
Y el viernes 4 de octubre, víspera de Fiestas, la compañía Deabru Beltza nos ofreció "Su Danborrak", espectáculo itinerante, nocturno, de percusión con pirotecnia. Aker, el diablo del Akelarre, deambuló con su séquito de percusionistas por la calle Mayor y la plaza Miguel Indurain.











# Kultur zabalkundea
# Difusión cultural

## ARTE ESZENIKOAK / ARTES ESCÉNICAS

### Dantza / Danza

**6** ikuskizun / espectáculos
**7** saio / funciones
**1.161** ikusle / espectadores
Okupazioa / ocupación **%57**

Dantza egitarauak 6 ikuskizun ekarri zizkigun, 1.161 lagunen gozagarri, antzokiaren edukiera maila % 57koa izan zela. Honatx ikuskizunak eta emaileak: martxoaren 16an, “Nik-Eu”, iXa (Xián Martínez), norbanakoaren maskulinitatea deseraikitzeko ariketa introspektiboa, gugan gogoeta eragiteko: nola eragiten dion egitura sozial heteropatriarkalak gizakiaren garapenari txikitandik heldutasunera iritsi arte; apirilaren 20an eta 21ean, “30 Urteurrena”, Mikelts Dantza Taldeak ondua, umorez betetako proposamena, euskal dantzak ulertzeko hainbat ikuspegi erakusteko; apirilaren 28an, “Luz Negra”, Dinamo Danza taldeak DNA 24 jaialdiaren barnean ekarria, zientzia eta artea uztartzen dituen koreografia-proposamena, argiaren izaeraren printzipioak artistikoki nola adierazi ikertzeko; ekainaren 20an, “El lago de los Cisnes”, Fueradeleje taldeak egina; urriaren 18an “Raíces”, Atena arte konpainiak emana, gure lurraldearen aniztasuna inspirazio harturik, gure jatorriak arakatzeko gonbidapena; eta azkenik, urriaren 31n, Olatz Larumbek “El reflejo de la mente” estreinatu zuen, mugimenduaren bidez identitateaz hausnartzeko, besteak duen garrantzia oroitarazita, gure gizartea gero eta indibidualistagoa den honetan.

El programa de danza nos ofreció 6 espectáculos que disfrutaron 1.161 personas, con un nivel de ocupación del teatro del 57%. Los espectáculos programados fueron: el 16 de marzo, “Nik-Eu”, de iXa (Xián Martínez), un ejercicio introspectivo en el que se deconstruye la masculinidad del individuo para invitarnos a reflexionar sobre cómo la estructura social heteropatriarcal afecta al desarrollo del ser humano desde su infancia a su madurez; el 20 y 21 de abril, “30 Urteurrena”, de Mikelts Dantza Taldea, una propuesta cargada de humor en la que se mostraron diferentes perspectivas de entender las euskal-dantzas; el 28 de abril, “Luz Negra”, de Dinamo Danza, dentro del Festival DNA 24, una propuesta coreográfica en la que ciencia y arte se unen para investigar cómo expresar artísticamente principios de la naturaleza de la luz; el 20 de junio, “El lago de los Cisnes”, de Fueradeleje; el 18 de octubre, “Raíces”, de la compañía artística Atena, inspirada en la diversidad de nuestra tierra y que nos invita a explorar nuestros orígenes; y, por último, el 31 de octubre se estrenó “El reflejo de la mente”, de Olatz Larumbe, una invitación a reflexionar sobre la identidad a través del movimiento, recordando la importancia del otro en una sociedad cada vez más individualista.








## ARTE ESZENIKOAK / ARTES ESCÉNICAS

### Dantza kalean / Danza en calle

**2** ikuskizun / espectáculos
**650** ikusle / espectadores

Irailean, dantzak karrika hartu zuen, bai hiri-dantzak, bai dantza tradizionalenek. Irailaren 10ean, 3 Dance jaialdiaren aurtengo edizioa gozatu genuen. Izan ere, Broda Bros hip-hop dantza eta hiri-kultura arloan diharduen taldeak “SILDERS” ikuskizuna eman zuen, hots, gurpil gainean dantzatutako mugimenduak, txorietan eta haien formazio ikusgarrietan inspiraturik, bai eta sekulan talka egiten ez duten eta mugimendu hipnotikoak eragiten dituzten arrain sardetan ere. Taldeko dantzariak ahalik eta gehien isurtzen dira patinen gainean, patinek eskaintzen duten aukera sorta izugarria baliatuz. Ikuskizunaren ondotik, Open saio bat egin zen, Borda Brosseko dantzariek berek gidaturik.
Irailaren 22an, Iruñerria Dantzabira ekimenaren edizio berria egin zen, Nafarroako Dantzarien Biltzarrak sustaturik. Eguesibarko Lakarri taldeak dantza erakustaldia egin eta gero, Topadantza burutu zen, hau da, dantzazale guztiendako herri dantzak, musikariek zuzenean jotzen dutela.

En septiembre la danza tomó la calle, tanto la urbana como la más tradicional. El 10 de septiembre se pudo disfrutar de una nueva edición del festival 3 Dance, que contó con Broda Bros. La compañía de hip hop, danza y cultura urbana presentó su espectáculo “SILDERS”, desplazamientos bailados sobre ruedas inspirados en los pájaros y sus formaciones espectaculares, o en los bancos de peces que nunca chocan y generan movimientos hipnóticos. Sus bailarines buscan fluir al máximo sobre los patines aprovechando el enorme abanico de posibilidades que ofrecen. Tras el espectáculo, se pudo disfrutar de una sesión de Open guiada por los bailarines de Borda Bross.
El 22 de septiembre tuvo lugar una nueva edición del Iruñerria Dantzabira, iniciativa promovida por Nafarroako Dantzarien Biltzarra. En esta edición fue el grupo Lakarri, del Valle de Egüés, el encargado de realizar una exhibición de bailes. A continuación, tuvo lugar una Topadantza, una sesión de danzas populares abierta a la participación del público aficionado con música en vivo.





# MUSIKAK / MÚSICAS

## Musika klasikoa eta korala / Música clásica y coral

**4** kontzertu / conciertos

**1.076** entzule / asistentes

Okupazioa / ocupación **%92**

Udaberriko zikloan lau kontzertu egin ziren: martxoaren 18an, hainbat talderen txanda izan zen: biolin, piano, hari eta kantu taldea; saxo ensemblea, haurren konboa, banda eta Hilarión Eslava musika eskolako big band taldea; martxoaren 22an, Iruñeko Orfeoiak, Mari Paz Arizkunek zuzendurik, musika sakroa eman zuen hasierako zatian (Brahms, Fauré, Mendelssohn, Haydn) eta, gero, euskal folkloreko lan sorta zabala, bai eta zartzuela eta musikal ezagunak ere; maiatzaren 5ean, Atarrabia Abesbatzak, “Hangoak eta hemengoak” eman zuen, Iñigo Casalík zuzendurik: hainbat herrialdetako 20 kantu, hainbat hizkuntzatan abestuak; azken kontzertua maiatzaren 19an egin zen, “¡De cine!” izenburupean, San Andrés abesbatzaren eskutik soinu-banda zoragarriak entzuteko.

El ciclo de Primavera ofreció cuatro conciertos: el 18 de marzo fue el turno de las agrupaciones de violín, piano, cuerdas y canto, el ensemble de saxos, el combo txiki, la banda y la big band de la Escuela de Música Hilarión Eslava; el 22 de marzo, del Orfeón Pamplonés bajo la dirección de Mari Paz Arizkun, que ofreció una primera parte sacra (Brahms, Fauré, Mendelssohn, Haydn) y una variada selección de obras del folklore vasco navarro y conocidas zarzuelas y musicales; el 5 de mayo Atarrabia Abesbatza bajo la dirección de Iñigo Casalí ofreció “Hangoak eta hemengoak”, 20 canciones de diferentes países interpretadas en diferentes idiomas; el ciclo concluyó el 19 de mayo con un concierto de bandas sonoras inolvidables para pasar una tarde “¡De cine!” a cargo de la coral San Andrés.





HILARIÓN ESLAVA
escuela de música – musika eskola





## MUSIKAK / MÚSICAS

### Rocka, folka eta popa euskaraz / Rock, folk y pop en euskera

**3** kontzertu / conciertos

**691** entzule / asistentes

Okupazioa / ocupación %**80**

Apirilaren 27an, Hogei Berriro taldeak euskarazko rocka eta bestelako doinuak ekarri zizkigun, Txuma Flamariquek gidaturik. Lertxundi, Itoiz, Laboa, Ordorika, Berri Txarrak, Gatibu eta beste batzuen printzak, hain zuzen ere.
Maiatzaren 11n, Korrontzik, euskal tradizioen eta herri musikaren enbaxadoreak, Atarrabia aukeratu zuen disko berria aurkezteko biran, Agus Barandiaranek gidatua, taldearen 20. urtemugaren karira.
Azaroaren 15ean, "Bira Nafarroan Barna" ekimenari esker, Ibil Bedi nafar taldeaz gozatzeko parada izan genuen; arras pop naturala jotzen dute, saxoaren eta biolinaren soinuak lagundurik, baina beste ertz batzuetara hurbiltzeko beldurrik gabe. Dagoenekoz hiru disko dituzte plazan, bai eta zenbait single ere.

El 27 de abril, el rock en euskera contó con la presencia de Hogei Berriro, liderado por Txuma Flamarique, que interpretó canciones de Lertxundi, Itoiz, Laboa, Ordorika, Berri Txarrak, Gatibu…
El 11 de mayo, Korrontzi, embajador de la música popular y de las tradiciones vascas, liderado por Agus Barandiaran, incluyó Atarrabia en su gira de presentación de su nuevo disco con motivo del 20 Aniversario de la formación.
El 15 de noviembre, el programa Girando por Navarra nos permitió disfrutar de la banda navarra Ibil Bedi, caracterizada por un pop muy natural acompañado por el sonido del saxo y del violín, pero sin miedo a acercase a otras orillas. Cuentan ya con tres discos y algunos singles.







## MUSIKAK / MÚSICAS

### Jorge Sánchez + Pepín Tre

**2** kontzertu / conciertos

**438** entzule / asistentes

Okupazioa / ocupación %**75**





Maiatzaren 12an, Nueva Trovaren 50. urteurrena zela eta, Jorge Sánchez kantautoreak eta Eva Niñok troba kubatarraren musika ekarri ziguten, mugimendu horretako bi musikari bikainen kantuetan oinarriturik, “Entre Silvio y Pablo te doy una canción” izenburupean.
Azaroaren 10ean, Pepín Tre konpositore, ekoizle, gidoilari eta umoregileak pop moldeko hitzontzikeria saioa ekarri zigun, hitz kopuru handiaren bidez istorio ezinezkoak kontatzeko.

El 12 de mayo, el cantautor Jorge Sánchez y Eva Niño nos ofrecieron, con motivo del 50 Aniversario de la Nueva Trova, un reencuentro con la música de la trova cubana protagonizada por sus dos músicos excepcionales bajo el título “Entre Silvio y Pablo te doy una canción”.
El 10 de noviembre, Pepín Tre, compositor, productor, escritor, guionista y humorista, ofreció un show de *charlatanería pop* consistente en contar historias imposibles con un gran número de palabras.

### Musikal familiarrak / Musicales familiares

**2** kontzertu / conciertos

**553** entzule / asistentes

Okupazioa / ocupación %**95**





Udazkenean, bi musika-ikuskizun gozatu genituen: urriaren 13an, Los Moonsters, eta azaroaren 9an, Musas y Fusas la Banda. Biei ere harrera ona egin zitzaien. Los Moonsters taldearen rock printzek balioak dituzte solasgai, eta inor ez dugula mespretxatu behar jendearen larruazal edo sinesmengatik. Musas y Fusas la Banda nafar taldeak bere azken diskoa aurkeztu zuen, “Donde crecen las flores”, pop rock estilokoa, baina punkaren kutsua ere dariola.

En otoño, dos espectáculos musicales, el 13 de octubre, Los Moonsters, y el 9 de noviembre, Musas y Fusas la Banda, cosecharon una gran acogida de público. Las canciones de rock de Los Moonsters hablan de valores, de cómo hay que evitar menospreciar a las personas por su piel o sus creencias. El grupo navarro Musas y Fusas la Banda presentó su último disco “Donde crecen las flores”, de estilo pop rock, aunque también con reminiscencias del punk.

# Kultur zabalkundea
# Difusión cultural

## MUSIKAK / MÚSICAS

### Mariatxiak eta 60/70/80ko kantu arrakastatsuak / Mariachis y éxitos de los 60/70/80

Kontzertu **bat** / **1** concierto

**850** entzule / asistentes

■ Abuztuaren 22an eta 23an, Imperial de Guanajuato mariatxi taldea (Mexiko) eta EPSILON musika taldea aritu ziren hurrenez hurren Udaletxe plazan. 8 musikari-kantarik osaturik dago Mariachi Imperial taldea (biolinak, tronpetak, gitarra handia, bihuela, akordeoia), bai eta dantza bikote batek ere. “Guadalajara”, “Jalisco”, “El preso nº 9”, “México Lindo”, “Caballo prieto azabache”, “Las mañanitas”, “Volver, volver” eta halako printzak eman zituzten… EPSILONen eskutik, atzera egin genuen joan den mendeko 60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetako kantu arrakastatsuetara.

■ El 22 y 23 de agosto se pudo disfrutar en la plaza Consistorial del grupo Mariachi Imperial de Guanajuato (México) y del grupo musical EPSILON, respectivamente. El Mariachi Imperial lo forman 8 músicos cantantes (violines, trompetas, guitarrón, vihuela, acordeón) y una pareja de baile. Interpretaron temas como “Guadalajara”, “Jalisco”, “El preso nº 9”, “México Lindo”, “Caballo prieto azabache”, “Las mañanitas”, “Volver, volver”, ... EPSILON nos ofreció un viaje musical a los éxitos de las décadas de los 60, 70 y 80 del siglo pasado.





### Opera / Ópera

Emankizun **bat** / **1** retransmisión

**105** entzule / asistentes

■ Irailaren 28an, “Adriana Lecouvreur” operaren emankizuna gozatzeko aukera izan genuen antzokian, Teatro Realetik bertako Abesbatzak eta Orkestra Titularrek zuzenean eskainia. Ekoizle-kide izan ziren Royal Opera House, Gran Teatre del Liceu, Wiener Straatsoper, Parisko Opèra National-a eta San Francisco Opera.

■ El 28 de septiembre se pudo disfrutar en el teatro de la retransmisión en directo desde el Teatro Real de la ópera “Adriana Lecouvreur”, a cargo del Coro y Orquesta titulares del Teatro Real en una coproducción de la Royal Opera House, el Gran Teatre del Liceu, la Wiener Straatsoper, la Opèra National de París y la San Francisco Opera.





# Kultur zabalkundea
# Difusión cultural

■ Azaroaren 30ean, San Andres eguna zela eta, “Lo mejor de la ópera y la zarzuela” emanaldia izan genuen, AGAOren eskutik (Operaren Adiskideen Gayarre Elkartea). Itsaso Loinaz eta Lorena Baines (sopranoak), Julen Jiménez (tenorra), Sabino Pérez de Ciriza (baritonoa) eta Eduardo Sola (pianista).

■ El 30 de noviembre, con motivo de la festividad de San Andrés, se pudo disfrutar de “Lo mejor de la ópera y la zarzuela” a cargo de AGAO (Asociación Gayarre Amigos de la Ópera). Itsaso Loinaz y Lorena Baines (sopranos), Julen Jiménez (tenor), Sabino Pérez de Ciriza (barítono) y Eduardo Sola (pianista).

## MUSIKAK / MÚSICAS

### Lirika / Lírica

Kontzertu **bat** / **1** concierto

**290** entzule / asistentes

Okupazioa / ocupación **%100**




■ Eguberriko zikloa abenduaren 14an hasi zen, “Urte berri egun ona / Canciones de paz y solidaridad” kontzertuaren bidez, Atarrabia Abesbatzak Iñigo Casalíren zuzendaritzapean Kultur Etxeko antzokian eskainia. Lankidetzan aritu ziren Itziar Pérez de Ziriza (klabezina eta pianoa), Clara Biurrun (viola da gamba) eta Alfonso Iturria, Leire Olalla eta Alfonso Zoco (txirula eztiak).
Abenduaren 21ean, Atarrabiako San Andrés Abesbatza, Ekhy Ocañak zuzendurik, kantari aritu zen herriko parrokian ohi denez gabon kanten kontzertua emateko.
Eta abenduaren 29an, In Tempore Abesbatza & Ensemble-k “The Stranger” eman zuen Kultur Etxeko antzokian, Kim André Amasen konpositoreak ondua, Estitxu Castellanoren zuzendaritzapean. “The Stranger” zinema-eraginaren estiloan dago sartua eta norvegiar sustraiko musikatik ere edaten du.

■ El ciclo de Navidad se inició el 14 de diciembre con el concierto “Urte berri egun ona / Canciones de paz y solidaridad” ofrecido por Atarrabia Abesbatza bajo la dirección de Iñigo Casalí en el teatro de la Casa de Cultura. Contó con la colaboración de Itziar Pérez de Ziriza (clavecín y piano), Clara Biurrun (viola de gamba) y Alfonso Iturria, Leire Olalla y Alfonso Zoco (flautas de pico).
El 21 de diciembre, la Coral San Andrés de Villava, bajo la dirección de Ekhy Ocaña, ofreció en la iglesia Parroquial su tradicional concierto de villancicos.
Y el 29 de diciembre, el Coro In Tempore Abesbatza & Ensemble ofreció en el teatro de la Casa de Cultura “The Stranger”, del compositor Kim André Amasen, bajo la dirección de Estitxu Castellano. “The Stranger” se enmarca en un estilo de influencia cinematográfica que bebe también de la música de raíz noruega.

### Eguberriko Kontzertuak / Conciertos de Navidad

**3** kontzertu / conciertos

**907** entzule / asistentes







## MUSIKAK / MÚSICAS

### Lankidetzak / Colaboraciones

**5** kontzertu / conciertos

**1.286** entzule / asistentes

Okupazioa / ocupación %**89**

Ekainaren 6an, Paz Ziganda ikastolan eskainitako emanaldian, hainbat abesbatzak eta dantza talde batek parte hartu zuten; azaroaren 28an, Jus la Rotxa eta “Amigos de la Guitarra” (Barakaldo) errondailek habanera kontzertu bat eman zuten; abenduaren 11n, KANTU-SALDA pop abesbatzak Solidarios con Arua erakundearen aldeko ongintza-kontzertua eskaini zuen; azkenik, abenduaren 12an, Sol Sostenido eskolak bi kontzertu erakustaldi eman zituen.

El 6 de junio, la Ikastola Paz Ziganda ofreció un concierto en el que participaron varias corales y un grupo de danzas; el 28 de noviembre, las rondallas Jus la Rotxa y “Amigos de la Guitarra”, de Barakaldo, ofrecieron un concierto de habaneras; el 11 de diciembre, el coro pop KANTU-SALDA ofreció un concierto benéfico a favor de Solidarios con Arua y, por último, el 12 de diciembre, la Escuela Sol Sostenido ofreció dos conciertos-muestra.







## LITERATURA / LITERATURA

### 781 ikasle, irakurzaletasuna sustatzeko jarduueretan

781 ikasle aritu ziren irakurzaletasuna sustatzeko programan, herriko ikastetxeetan. Helburua da irakurtzeko ohitura sustatzea bai idazleekiko topaketen bidez, bai ahozko kontakizun saioen bidez, literatura irakaskuntza arautuan ez bezala ikasleei erakusteko. Horrela, guztira, sei orientazio saio egin ziren irakasleekin, haur eta gazte literaturan adin bakoitzerako egokiak diren liburu berriak lehen eskutik ezagutzeko eta ikastetxe bakoitzean egin beharreko jarduera mota aukeratzeko. Urtarriletik maiatzera, 9 topaketa egin ziren Yolanda Arrieta, Miren Agur Meabe, Belatz, Amets Arzallus eta Esti Vivanco idazleekin; eta ahozko kontagintzako 20 saio, Charo Pita, Ameli, Pepe Maestro eta Oswaldo Pairen eskutik. Hamaika jarduera gaztelaniaz egin ziren, eta bederatzi, euskaraz. Beste behin ere, harrera bikaina izan zuen. Programaren osagarri, haur eta gazte irakurgaiei buruzko gomendioak dakartzan CALCO aldizkariaren 27. zenbakia banatu zen.




### 781 escolares en actividades de fomento a la lectura

